# IRPHak KALTETUTAKOEN ELKARTEA
# GIPUZKOA
# PLATAFORMA DE AFECTADOS POR EL IRPH

www.irphstop.plazan.net :: irphstop@gmail.com

## ELKARRETARATZEA, KUTXAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN BILERA DELA ETA.

*DONOSTIA, 2013/11/28*

IRPHak Kaltetuakoen Gipuzkoako Elkarteak gaur, azaroak 28, elkarretaratzea antolatu du Kutxaren Garibai kaleko egoitza aurrean, bertan ospatzen den Administrazio Kontseiluaren bilera dela eta.

Plataforma honek kontseilariei gogorarazi nahi die Donostiako udalbatzak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Kutxaren sortzaile izanik, dei zuzena egin dietela iadanik desagertu den IRPH Cajas indizea aplikatzeari utzi eta gure kontratuek aurreikusten duten Euribor+%1 ordezkoa berehala aplikatzeko. Eskaera berbera egin diete baita ere Gasteizko legebiltzarrak eta Gipuzkoako udaletxe askok eta askok.

Plataforma honek herritarron subiranotasunaren hartzaile diren instituzioen mandatuarekin betetzea aktiboki bultzatzen ez duten kontseilariak merezi duten bezala hartuko ditu: benetako KRIMININAL moduan, modu desegoki eta gaitzesgarrian jokatzeagatik. Batzar Nagusien plenoak kargu hartu die, pasa den azaroaren 6an onarturiko ebazpenean esaten baitu «legez» dagokigun Euribor+%1 ordezkoa aplikatu ez bazaigu entitateak «era bidegabean» jokatzen duelako dela.

Kriminal hauek izen-abizenak dituzte eta Xabier Iturbe dute buru. Bere akolitoak PNV, PSE eta PP-k Administrazio Kontseiluan dituzten ordezkariak dira. PNV eta PSE-ren hipokrisia eskandalagarria da, instituzioetatik Kutxari IRPH gehiago ez aplikatzeko eskatzen dioten bitartean, Administrazio Kontseiluko poltronatan eserita dituzten ordezkariek guztiz aurkakoa erabakitzen dute.

Modu honetan, Gipuzkoan milaka familia estutu eta kaleratze arriskura bultzatzen dituzte, IRPH Cajas indizea aplikatuaz. Indize hau 2009an Europak gaitzetsi egin zuen, 2011n estatu espainiarrak gardentasun gabetzat jo zuen, 2012 debekatua izan zen hipoteka berrientzako eta 2013an guztiz desagertu da. Kutxak aplikatzeari eusten dio

## CONCENTRACIÓN DE PROTESTA CON MOTIVO DE LA SESIÓN DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE KUTXA.

*DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN, 28/11/2013*

La Plataforma de Afectados por el IRPH de Gipuzkoa se concentra hoy 28 de noviembre frente a la sede central de Kutxa en la calle Garibai con motivo de la sesión del Consejo de Administración de Kutxa que se celebra en el interior.

La plataforma recuerda a los consejeros que han sido directamente interpelados por el pleno del ayuntamiento de Donostia y las Juntas Generales de Gipuzkoa, entidades fundadoras de Kutxa, a desistir en la aplicación del desaparecido índice IRPH Cajas y aplicar de inmediato el sustitutivo previsto en nuestros contratos, es decir Euribor+1%. Esta misma petición ha sido realizada también por el pleno del parlamento vasco y numerosos ayuntamientos de Gipuzkoa.

Los consejeros que no defiendan activamente cumplir con el mandato que han recibido de las instituciones depositarias de la soberanía popular serán tratados por esta plataforma como lo que son: unos auténticos CRIMINALES, por actuar de manera indebida y reprensible. Y es que incluso el pleno de Juntas Generales les ha reprendido, en la resolución aprobada el pasado 6 de noviembre, juzgando que si no se nos ha aplicado el sustitutivo de Euribor+1% que nos corresponde «legalmente», es porque la entidad ha actuado «indebidamente».

Estos criminales tienen nombre y apellidos y están encabezados por Xabier Iturbe. Sus acólitos son los representantes de PNV, PSE y PP en el Consejo. La hipocresía de PNV y PSE es escandalosa, pues los mismos que desde las instituciones hacen llamamientos a Kutxa para que no prolongue la aplicación del IRPH son los que una vez sentados en sus poltronas en el Consejo de Administración deciden todo lo contrario.

De este modo siguen exprimiendo y abocando al desahucio a miles de familias en toda Gipuzkoa mediante la aplicación del IRPH Cajas, un índice que en 2009 fue afeado por Europa, en 2011 fue decretado falto de transparencia por el estado español, en 2012 fue prohibido para la

ordea, eta gure hipoteka maileguen hurrengo rebisiora arte luzatu nahi du, kasurik okerrenetan 2014ko urrira arte.

Plataformak aukera hau baliatu nahi du Jon Jauregiri gogorarazteko Kutxaren Administrazio Kontseiluan duen funtzioa Gipuzkoako Batzar Nagusiak ordezkatzearena dela. PNVko kide honek Diputatu Nagusirako hautagaitza utzi behar izan zuen bere ustezko iruzur fiskalaren berri jakin zenean. Jon gonbidatu nahi dugu Batzar Nagusien postura defendatzera edota bere kargua berehala uztera.

CCOO, Pixkanaka eta DYA-k Administrazio Kotseiluan dituzten ordezkariei berriz, kaltetuok jarrera hartze garbia exijitzen diegu.

Bestalde, kaltetuen plataformak EH Bildu koalizioa osatzen duten pertsona eta alderdiei esker ona adierazi nahi die, ordezkaritza duten foro guztietan bidegabekeria honen amaiera bultzatzeagatik. Hau plataforma apartidista da. Elkartzen gaituen helburu bakarra IRPHarekin akabatzea da, eta bide horretan errudunak eta hipokritak salatuko ditugu.

Bukatzeko, gogorarazi nahi dugu kasu honetan kaltetuok eskatzen dugun gauza bakarra gure kontratuek diotena betetzea dela. Bertan ezartzen da IRPH Cajas desagertuko balitz Euribor+%1 aplikatuko zaigula, «para toda la vida de la operación». IRPH Cajas desagertu da, eta beraz ez dago aitzakiarik Euribor+%1 aplikatzea atzeratzeko. Eta “toda la vida” bizitza osoa denez, aplikazioak atzerako eragina izan beharko du, maileguaren haseratik.

Eranskina: Batzar Nagusiek 2013/11/6an onarturiko ebazpena.

contratación de nuevas hipotecas y en 2013 ha desaparecido completamente. Kutxa, sin embargo, sigue aplicándolo y pretende mantenerlo hasta la próxima revisión de nuestras hipotecas, que en los peores casos será en octubre de 2014.

La plataforma aprovecha la ocasión para redordar a Jon Jauregi, miembro del PNV que tuvo que abandonar su candidatura a Diputado General al destaparse un presunto fraude fiscal, que su papel en el Consejo de Administración de Kutxa es el de representante de las Juntas Generales. Puesto que la postura de las Juntas Generales en relación al IRPH ha quedado clara, invitamos a Jon a defenderla activamente en el Consejo o a abandonar de inmediato su cargo.

En cuanto a los representantes de CCOO, Pixkanaka y DYA en el Consejo de Administración, los afectados les exigimos asimismo un posicionamiento claro.

Por otro lado, la plataforma de afectados agradece el apoyo incondicional de las personas y partidos que forman la coalición EH Bildu, por impulsar el fin de esta injusticia en todos los foros en los que tienen representación, y lo hace subrayando que esta es una plataforma apartidista. Nos une exclusivamente el interés por terminar con la estafa del IRPH de la que somos víctimas, y en ese camino señalaremos a los culpables y a los hipócritas.

Para terminar, queremos recordar que en este caso los afectados solo pedimos que se cumpla lo establecido en nuestros contratos, que dictan que en caso de desaparecer el IRPH Cajas se nos aplicará Euribor+1% «para toda la vida de la operación». Puesto que el IRPH Cajas ha desaparecido, ya no hay excusas para retrasar la aplicación del Euribor+1%. Y como toda la vida es toda la vida, la aplicación ha de ser retroactiva, desde el inicio de la hipoteca.

Anexo: resolución aprobada en JJGG el 6/11/2013

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

**90/2013 EBAZPENA, KUTXAK ETA BANKUEN MAILEGU HIPOTEKARIOEN ERREFERENTZIAZKO INDIZEA ETA HIPOTEKEN INTERES TASEN ERREFERENTZIAZKO INDIZEAK DESAGERTZEKO ETA ALDI BATERAKO ERREGIMENA EZARTZEAREN INGURUAN (IX. LEGEALDIA)**

(2013ko azaroaren 6ko Osoko Bilkuran onartua)

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan bulegoak dituzten kreditu-erakunde guztiei eskatzen diete berehala aplikatzeko Espainiako Bankuak dagoeneko argitaratzen ez dituen indizeak edo erreferentzia-tasak (kutxen eta bankuen hipoteka-maileguen erreferentzia-indizea eta Aurrezki Kutxen Espainiako Konfederazioa —CECA—) ordezkatzeko legez ezarrita dagoen erregimen iragankorra.

2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan bulegoak dituzten kreditu-erakunde guztiei eskatzen diete berehala aplikatzeko euribor-tasaren erreferentzia-indizea gehi puntu bateko ordezko klausula, legez egokitu arren 2013ko azaroaren batetik aurrera oraindik —era bidegabean— aplikatu ez duten kasuetan.

3. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan bulegoak dituzten kreditu-erakunde guztiei eskatzen diete arreta eta irtenbide egokiak eskaintzeko zaurgarritasun-egoeran dauden eta bizilekua Gipuzkoan duten bezeroei.

**RESOLUCIÓN 90/2013, RELATIVA A LA DESAPARICIÓN DEL ÍNDICE DE REFERENCIA DE LOS PRÉSTAMOS HIPOTECARIOS Y DE LOS ÍNDICES DE REFERENCIA DE LOS TIPOS DE INTERÉS DE LAS HIPOTECAS DE CAJAS Y BANCOS, Y AL ESTABLECIMIENTO DEL RÉGIMEN TRANSITORIO (IX LEGISLATURA)**

(Aprobada en la Sesión Plenaria de 6 de noviembre de 2013)

1. Las Juntas Generales de Gipuzkoa instan a todas las entidades de crédito que cuenten con oficinas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a aplicar, de forma inmediata, el régimen legalmente previsto en relación con la sustitución de los índices o tipos de referencia que han dejado de publicarse por el Banco de España (los conocidos como IRPH Bancos, IRPH Cajas y CECA).

2. Las Juntas Generales instan a todas las entidades financieras de crédito que cuenten con oficinas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a aplicar, de forma inmediata, la cláusula sustitutiva del índice de referencia del tipo de euribor más un punto a aquellos casos a los que, aún correspondiéndoles legalmente, no se les haya aplicado, indebidamente, a partir del 1 de noviembre de 2013.

3. Las Juntas Generales de Gipuzkoa instan a todas las entidades de crédito que cuenten con oficinas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a atender a las situaciones de vulnerabilidad que pudieran presentar sus clientes domiciliados en el Territorio, y ofrecer a los mismos soluciones ajustadas a dichas situaciones.

**Donostian, 2013ko azaroaren 6an.**

**ONTZAT EMANA / VISTO BUENO**
**LEHENDAKARIA / LA PRESIDENTA**

**BAIMENDUA / AUTORIZADO**
**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

**Iñigo Manrique Cía**

**Lohitzune Txarola Gurrutxaga**